

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005EKO AZAROA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera %4,7 hazi zen 2005eko azaroan

2005eko lehenengo hamaika hilabeteetako bilakaerak %2,9ko hazkundera izan zuen aurreko urteko aldi beraren aldean

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2004ko azaroaren aldean %4,7 hazi zen 2005eko azaroan. Urteko lehenengo hamaika hilabeteetan aurreko urtean baino %2,9 gehiago hazi zen jarduera hori.

2005eko azaroan, eta aurreko urteko urriaren aldean, EAEko industri produkzioa %1,9 hazi zen baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean betiere hilabeteen arteko datuak alderatu ahal izateko.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen
urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka**



(*) 2005eko urri-azaroko urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektore guztiak aintzat hartuta eta industri sektore nagusienek, ekoiztu dituzten ondasunen xede ekonomikoaren arabera, duten sailkapena kontuan hartuta 2005eko azaroko indizearen bilakaerak (2004ko hilabete beraren aldean) hurrengo aldaketak izan zituen: urte arteko hazkunde tasarik handiena ekipamenduko ondasunetan eman zen (%14,9), gero kontsumo-ondasunetan (%2,7); izan ere, kontsumo-ondasun iraunkorren urte arteko hazkundera %1,8koa izan zen eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrena %3,2koa. Tarteko ondasunek %0,7ko urte arteko aldakuntza positiboa izan zuten, baina energiak urte arteko aldi horretan %1,5 egin zuen atzera.

2005eko lehenengo hamaika hilabeteetako metatutan, ekipamenduko ondasunak %5,4 hazi ziren, energia %2,7, tarteko ondasunak %2,1 eta kontsumo-ondasunak %0,4; hain zuzen ere, kontsumo-ondasun ez iraunkorren hazkundera %0,8koa izan zen eta

kontsumo-ondasun iraunkorren beherapena %0,3koa. Datu hauek guztiak 2004ko lehenengo hamaika hilabeteekin alderatuta atera dira.

2005eko azaroko hilabete arteko aldakuntzak (urte bereko urriaren aldean) zeinu ezberdina izan du industriako sektore nagusienetan. Ekipamenduko ondasunak hilabete artean hazi egin dira (%5,1). Kontsumo-ondasunek hilabete arteko hazkunde positiboa izan zuten (%3,7); kontsumo-ondasun iraunkorren hilabete arteko aldakuntza %3,3koa izan zen eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrena %3,9koa. Tarteko ondasunen hilabete arteko bilakaera %0,7koa izan zen, aitzitik energiak %5,0 egin zuen atzera urriaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen azaroko urte arteko bilakaerak positiboak izan ziren hiru lurralde historikoetan; Araban %8,8 hazi zen, Gipuzkoan %5,1 eta Bizkaian %2,3, betiere lan-egutegi homogeenari dagokionez.

2005eko azaroko datuak urriaren aldean desestazionalizatu zirela kontuan hartuta, hilabete arteko hazkunde tasak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %2,6 hazi ziren, Gipuzkoan %2,2 eta Bizkaian %1,2.

Taula: 2005EKO AZAROA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	aza05/aza04	At/At-1 (1)	aza05/urr05	urr05/ira05
Indize orokorra: Euskal AE	4,7	2,9	1,9	-1,0
Araba	8,8	2,6	2,6	-0,9
Bizkaia	2,3	2,3	1,2	-1,0
Gipuzkoa	5,1	3,6	2,2	-1,1
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	2,7	0,4	3,7	-4,8
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	1,8	-0,3	3,3	-2,7
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,2	0,8	3,9	-5,7
Ekipo-ondasunak	14,9	5,4	5,1	-0,9
Bitarteko ondasunak	0,7	2,1	0,7	-1,0
Energia	-1,5	2,7	-5,0	5,0

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp